

POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN

Diputatu nagusiaren hitzaldia

Eider Mendoza Larrañaga

2024-09-18

1. SARRERA

Batzar Nagusietako presidente jauna, foru gobernuko diputatuak, batzarkideak, kazetariak eta gaur gurekin zaudeten lagun guztiak, egun on, eta eskerrik asko osoko bilkura honetara etortzeagatik.

15 hilabete igaro dira Foru Gobernua osatu genuenetik, eta lehenbiziko egunean adierazitako ilusio eta indarra handitu besterik ez dira egin denbora honetan.

Urte oso intentsu eta emankorra izan da lehenengo hau. Momentu gazi, gozo eta baita oso tristeak ere bizitzea egokitu zaizkigunak. Azkena, ondo dakizuen bezala, momentu latzena, abuztuaren 6an, Jokin Perona Ogasun eta Finantza diputatuaren heriotzaren berri izan genuenean.

Bat egiten dugu guziok baieztatzean gizon, lagun, lankide eta zerbitzari publiko eredugarria zela Jokin. Egunero bere onena ematen zuena irribarre batekin, hurbiltasunetik, energiagaz, positibotasunez eta indarrez. Langile perfektionista zen, zintzoa eta apala, eta zailena beti erraza izatea lortzen zuen. Benetan eskertuak gaude profesional bikain eta pertsona ezinhobe honekin elkar hartuta lan egiteko aukera izan dugulako. Eta berak hasitako bidea Itziar Agirre eta Ogasuneko taldearen eskutik jarraituko dugu, indarrez. Asko daukagulako eskuartean eta asko emateko.

Nire kargu hartzean esan nuen hau ez zela bulegoko agintaldia izango. Gipuzkoako plazatik Gipuzkoako plazetara igaroko ginela. Eta horretan aritu gara, egunero-egunero, gure lurraldean barrena ibiltzeko eta lan egiteko aukera izan dugulako, hainbat eragileren eskutik. Dagoeneko izanak gara Gipuzkoako 50 herritan, bailara guzietako 41 enpresa bisitatu ditugu eta hainbat arlotako 105 eragilerekin batzartu gara.

Horrez gain, ekimen berezi bat abiatu dugu, hilero gobernu kontseilu ibiltaria herri batean egiteko helburuarekin eta tribuna honetatik eskerrak eman nahi dizkiet Leintz Gatzaga, Zestoa, Zumarraga, Deba eta Zarauzko

alkateei, beso zabal egin diguten harreragatik. Hain izaten ari da esperientzia positiboa, datozen hilabeteetan ere eusteko konpromisoa daukagula, alkateen eskutik gure lurraldeko txoko, proiektu eta ekimen izugarrietan sakontzeko aukera izaten ari garelako, eta elkarlaneko bidea sendotzen ari delako astez-aste.

2. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA

Gaurko hitzaldia bizi dugun egoeraren diagnosi batekin hasiko dut. Mundua eta nazioarteko testuingurua asko eta azkar aldatzen ari direlako azken urteotan, eta horrek eragin zuzena daukalako gure herrian eta lurraldean.

Pandemiak, krisiek eta gatazka globalek nabarmen aldatu dute ezagutzen genuen errealitatea.

Hori gutxi balitz, Ukrainian Europako azken gizaldiko gerrate krudelena hasi zen Putinen erasoaren ondorioz. Eta geroztik, berri ikaragarriak jasotzen ditugu egunero, milaka eta milaka hildakorekin.

Urriaren 7an, berriz, Hamasen erasoaren testigu izan ginen Ekialde Hurbilean, izugarrizko beldur eta inpotentziarekin. Eta oraindik ez genekien Netanyahuaren gobernuaren erantzunaren tamaina zein izango zen. 40.000 lagundik gora erail dituzte hamaika hilabeteetan, gehienak, emakume eta haurrak. Zibilak. Basakeria guztiz bidegabea.

Ezegonkortasunak, pobreziak eta gerrek ere gora egin dute etengabe Afrika eta Asiako zenbait herrialdeetan eta gero eta gehiago dira Europara ihesi etortzen diren gazteak. Eta askok, gehiegik, ez dute helburua lortzen. CEAR errefuxiatuen aldeko elkartearen arabera, 2023 urtean, ia 4.000 lagun hil ziren itota Europara bidean. Gugandik hurbil, Bidasoako uretan ere ikusi ditugu ezintasunarekin drama honen ondorioak azken urteotan.

Testuinguru zail honetan kezka bereziarekin bizi ditut faxismoaren eta populismoaren gorakadak. Historiako beste pasarte zailetan gertatu izan den bezala, arazo konplexuei irtenbide errazak proposatzen ikusi ditugu azkenaldian ultraeskuineko hainbat ordezkari. Eta berdin muturreko zenbait ezker populista autoritario. Erakundeen eta gizartearen arteko haustura sustatzen dute, herrigintzari sekulako kaltea egiten diote, herri ordezkari demokratikoen legitimitatea zalantzan jartzen dute eta Europako ongizate estatuarentzat benetako arriskua dira.

Gipuzkoa ez da irla bat, baina, zorionez, beste paradigma batean gaude.

Azken urteotako errealtatea gogorra izan bada ere, datuek erakusten digute gizarte kohesioari eustea lortu dugula, familiak eta pertsonak babestuz. Gizarte desberdintasuna neurtzen duen GINI indizea 23 puntutan dago Gipuzkoan, Europako bataz bestekoa, berriz, 29,6an kokatzen da eta Estatukoa, 32 puntutan. Aurretik Europar Batasuneko herrialde bakarra dugu: Eslovakia (21,2 punturekin) eta pandemiaren geroztik ezberdintasun sozialak Suedia edota Danimarka bezalako herrialdeetan handitzen badoaz ere, Gipuzkoan behera egiten jarraitzen du GINI indizeak. 2017ko 25.3tik, 2022ko 23ra. Bi puntu bost urtetan. Zoriontzeko lorpen kolektiboa, benetan. Eta ahalegin kolektibo horri eusten jarraitu behar diogu. Ez garelako irla bat.

Azken urteotan, urrats garrantzitsuak eman ditu Gipuzkoak.

Elkarlanerako eremu eta espazio berriak martxan jarri ditugu. Eta orain, lan horri esker eta, batez ere, gure gizartearen indarrari eta dinamismoari esker, oinarri sendoa dugu aurrera egiteko. Lau datu aipatuko ditut:

- Langabezia tasa % 5,6koa da.
- Pertsona okupatueta, 334.000 laguneko langa gainditu dugu.
- Barne Produktu Gordinaren % 2,75 ikerketa eta garapenera bideratzen dugu, eta gorantza goaz.
- Industria eta honi lotutako zerbitzuek Barne Produktu Gordinaren %40 baino gehiago osatzen dute.

Aldi berean, desafio nabarmenak ditugu. Pobreziari buruzko azken inkestaren arabera, babesa eta laguntza behar duen herritar asko dugu oraindik eta 42.200 lagun pobrezia egoeran bizi dira. Gure enpresetan, berriz, lanpostuak betetzeko zailtasunak dituzte: aurten bertan 8.500 langile beharko dituztela aurreikusten dute.

Oinarri sendoak izan arren, arazo eta desafio berriak ditugu eta horiei aurre egiteko planteamendu estrategiko berri bat diseinatu dugu. Errealitate berriek estrategia berriak eskatzen dituztelako.

Jarraian, horien inguruan sakonduko dut.

3. ETORKIZUNEN ERONKAK

Esan bezala, mundua zalantzaz beteriko testuinguru batean dago murgilduta. Guzontzat ezagunak diren krisi eta sakoneko desafio eta eraldaketei egin behar diegu aurre: erroka demografikoa, migratzaileen inklusioa, gizarte kohesioari eustea, ekonomiaren ziurgabetasuna, lan

merkatuaren eraldaketa, teknologia berrien inpaktua, euskara arlo digitalean kokatzea, aldaketa klimatikoa...

Gainera, pandemiak geroztik, gizartean presente zeuden hainbat kezka eta desafio sozial emergente areagotu dira, hala nola, bakardadea, indibidualismoa, buru osasuna, adikzioak eta bazterkeria egoeren kronifikazioa.

Datu bat ematearren: 2023ko Euskadiko Osasun Inkestaren arabera, euskal herritarren osasun mentala nabarmen okertu da: buruko osasun arazoren bat daukaten emakumeak %16 izatetik %25 izatera igaro dira azken bost urteetan, eta gizonak, berriz, % 9 izatetik % 17,7 izatera.

Asko dira erronkak, baina bat dena barne biltzen duena: gipuzkoar guztien ongizate integrala babestea. Plan Estrategikoaren erdigunean kokatu dugu helburu hau, 118 ekintza lerroren bidez.

Ekimen batzuk abian zeuden jada Etorkizuna Eraikizen, proba pilotu izaerarekin jaio eta arrakasta zutela ikusita trakzio proiektu izaera hartu dutelako. Horien artean daude, adibidez Pasaiko Zaintza Herri Lab proiektu pilotua, datozen urteetan lurralde osora zabaldu nahi duguna; edota bakardadeari aurre egiteko martxan jarri zen Hariak proiektu pilotua. Gaztetxoan trebetasun sozialak lantzeko EKKO programa, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko udalekin eta eskoletan garatzen ari dena; eta gazteen mendekotasun ez-kimikoak prebenitzeko proiektu pilotu bat ere bultzatu dugu helburu berarekin.

Beste ekimen batzuk, ordea, berriak dira, adibidez datozen asteetan ezagutaraziko dugun Buru Osasunaren aldeko plana edota zaintza-eskolak. Zahartzearen, gizarteratzearen, haurren babesaren eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eremuetan ere ari gara esku hartzen, kirol programa baten bidez. Gainera, Gipuzkoako biztanleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta beste ohitura osasungarri batzuk jartzeko programak diseinatzen ari gara elikadura, ongizate emozionala eta mugikortasun aktiboa bezalako ardatzei heltzeko.

Proiektu guztiak bat datoz helburu batean: pertsona ororen ongizatea sustatzea. Ondo egotea ez baita nahikoa, pertsona guztiok ondo sentitzea da helburua.

Ausartuko nintzateke esatera Europako leku erakargarrienetariko batean bizi garela. Lehen aipatutako datuei erreparatu, puntako ongizate maila daukagu, ekonomia indartsu doa, desberdintasunek behera egiten jarraitzen dute, zerbitzu eta azpiegitura onak ditugu eta gure herritarren

gehiengoak ondo edo oso ondo bizi dela dio. Baina ondo bizi arren, pertsona asko ez da ondo sentitzen. Batzuk triste sentitzen dira; beste batzuk bakarrik; gaixo, itxaropenik gabe, adikzioetan erorita, etorkizunari beldur, esperantzarik gabe. Hori da parean daukagun errealitate bat, heldu behar dioguna. Pandemiak eta krisietatik eratorritako errealitate eta erronka berriak dira. Eta gure betebeharra da horiei erantzuteko ekarpena egitea. Berrikuntzatik eta ausardiarekin. Eta horretan ari gara buru-belarri, gizarte eragileekin elkarlanean.

Gipuzkoarren ongizate integrala guzian erronka kolektibo berria delako.

Baina, zer da ongizatea?

Ongizate osoa da bizitza beteak edukitzea. Zure buruarekin eta inguruan daukazuarekin ondo sentitzea. Kalitatezko lanpostu bat, etxebizitza duina, zaintza eta gizarte babesa, komunitate bateko kide sentitzea, berdintasunez bizitzea, ingurune berde eta jasangarriaz gozatzeko aukerazitatea, elikadura osasuntsua, bizitza orekatu eta osasungarria, ongizate mentala eta emozionala. Hori guztia da ongizate integrala.

Orainari eta etorkizunari begira egiten dugu lan.

Hemendik 10-15 urtera begira jartzen bagara, horrela ikusten dugu gure lurraldea: Gipuzkoa komunitate arduratsu, berdinzale, orekatu eta bidezkoa, pertsona guztien ongizate osoa zaintzen duen ekonomia lehiakor, berritzaile eta jasangarria duena, eta zentzua duten etorkizuneko proiektuak garatzeko aukerak sortzen dituen.

Bisio hori gauzatzeko, gauzak beste modu batera egiteko apustua egin dugu. Horretan dihardugu eta oraindik eta berritzaileago izango gara datozen hiru urte hauetan. Eta, horretarako, lau alorretan eragingo dugu batez ere.

- 1. Ongizatea eta zaintza**
- 2. Ekonomia**
- 3. Jasangarritasuna**
- 4. Demokrazia**

Lau eremu horietan egiten ari garena adieraziko dizuet jarraian.

3.1. ONGIZATEA ETA ZAINITZA

Ongizatea eta zaintza eredu berria hedatzen jarraitzea da legegaldi honetako lehentasun nagusietako bat. Pertsonak zaintzea. Izan ere, Gipuzkoa aitzindari da gizarte politketan hirugarren sektorearekin

elkarlanean sortutako sareak emaitza arrakastatsuak eman dituelako azken hamarkadetan. Eta abangoardian jarraitu nahi dugu.

Gaur egun, 31.000 lagun daude Foru Aldundiaren gizarte politiken departamentuaren babespean. Dependentsia eta desgaitasuna daukaten pertsonak, adinekoak, bazterkeria egoeran daudenak eta Aldundiaren tutoretzapean dauden 784 haur. Horien guztien arreta hobetzea eta ongizate sistema hedatzea dira, hain zuzen ere, gure lehenetasun nagusiak.

Pandemian eragindako aldaketa sakonak aintzat hartuta, aurreko legealdian aurrerapen garrantzitsuak eman genituen zaintza eredu berria lurralde osora hedatzeko lanean, eta orain helburu hori hedatzeari ekin diogu. Arreta pertsonalizatuagoa, berritzaileagoa eta komunitatearekin lotua eskaintzen hasi gara dagoeneko Gipuzkoako egoitzetan, eta aldaketa hau sare osora hedatzen joatea da legealdirako finkatu dugun helburua. Ez da erronka makala.

Horrez gain, jakina den bezala, hiru egoitza berri eraikitzeke lanetan ari gara burubelarri. Trintxerpen, urtebete pasa da Pasaiako biziberritzearen mugarri izango den Adinberri egoitza berritzailearen eraikuntza hasi zenetik eta Irunen hastear dira Arbes egoitza altxatzeko lanak. Elgoibarren, berriz, azken izapideak amaitzen ari gara. Ahaztu gabe Arrasaten, Urnietan edota Zarautzen eguneko zentro, gune eta baliabide berritzaileak ireki ditugula adineko pertsonak, adingabeak, bazterkeria egoeran daudenak, desgaitasuna dutenak edota buruko gaixotasuna dutenak gero eta hobeto zaintzeko.

Gainera, gizartearen zahartzeari erreparatuta, epe luzeagora begira etorkizuneko egoitza eta zerbitzuen sarea diseinatzen eta egoitza berriak eraikitzeke aurreikuspenak lantzen ari gara. Gero eta urte gehiago bizi gara, eta zahartzearen erronkari aurre egiten jarraitu beharra dago.

Horren gainean, aipamen bat egin nahiko nioke gizarte zerbitzuen mapa berrituari ere, 2024-2030 aldirako 1.500 plaza berri sortzea aurreikusten dugulako. Zehazki, 1.032 mendekotasunerako; 230, desgaitasunerako; 136, gizarteratzerako; 92, gaixotasun mentalerako; eta 63, adin txikikoentzat. 1.500 plaza berri etorkizunean ere pertsona guztiak zaintzen jarraitzeko.

Jakina da adineko pertsonen hamarretik zortzik euren etxean bizitzen jarraitu nahi dutela. Etxean eta ondo. Horregatik, adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran daudenen zaintza profesionalizatua indartzen

jarraituko dugu, etxearekiko eta familiarekiko hurbiltasuna bermatuz. Eta horretarako, Pasaian duela sei urte abiatu genuen Zaintza Herri Lab estrategia bezalako ekimenak lurraldean barreiatzen jarraituko dugu, udaleko zerbitzu sozialak, Aldundikoak, Osakidetzak eta komunitateak bat eginda. Gaur egun, 15 herritan ditugu aktibo zaintza ekosistema lokalak eta haratago goaz, lanean ari garelako ahalik eta udalerrri gehienetara zabaltzeko, Gipuzkoako biztanleriaren erdiak zaintza eredu hori jaso dezan. Eta eskalatzen jarraitu.

Emaitza benetan onak ematen ari da esperientzia. Zerbitzua hobetzeaz gain, Gipuzkoaren izaera komunitarioa bultzatzea lortzen delako. Ikusi baitugu, eguneko zentroak, laguntza teknikoak edota etxez etxeko laguntza zerbitzuak erabilita, mendekotasun prestazioekin konbinatuz, bost urtera arte atzeratzen dela egoitzan sartzea. Badakigulako, esan bezala, hori dela gure nagusien desioa: ahalik eta gehien luzatzea etxean egotea.

Azpimarratu nahi nuke zaintza ekosistema lokalek, Zaintza Herri Lab estrategiak, alegia, Europar Batasunaren babesa jaso dutela eta praktika on gisa partekatuko dela estatu kideen artean. Bide onetik goaz.

Hobetzen jarraitzeko bide horretan, menpekotasun balorazioak egiteko epea erdira jaisteko determinazioarekin ere jarraitzen dugu, eta %30 ingurura murriztu da denbora lehen urtean.

Bada bultzatutako ekimen guztien artean, aparteko aipamena merezi duen bat, hain zuzen ere, aukeratu gabeko bakardadea saihestera bideratutakoa. Badira hiru urte Hariak, bakardadeari aurre egiteko estrategia, aktibatuta genuela. Izan ere, Aldundiak Adinberriren bidez, 2020. urtean bideratutako ikerketa batean azaleratu zen 55 urtetik gorakoen %29,5 bakarrik sentitzen zela gure lurraldean. Eta adinak gora egin ahala, zifra hori handituz doa. Gainera, bakarrik sentitzen den gazteen kopuruak nabarmen egin du gora pandemiak geroztik.

Azken hilabeteotan urrats bat gehiago eman dugu, Europako Interreg programaren barruan kokatutako Korale proiektuaren buru delako Gipuzkoa. Helburua da nahi ez diren bakardadeak politika publikoen erdigunean egotea Europa osoan. Hau ere praktika on bezala aitortu du Europak.

Bi proiektu berritzaile, beraz, Zaintza Herri Lab eta Hariak estrategia, Europaren aitortza jaso dutenak.

Arestian aipatu bezala, herritarren ongizate emozionalak berebiziko garrantzia izango du legealdi honetan. Eta alor honetan ere, sentsibilizazioa, prebentzioa eta pertsonalizazioa izango dira hiru ardatzak. Horretarako, ahalegin berezia egiten ari gara bizitza osasungarri eta aktiboa sustatzeko, gazteengan indar berezia jarriz. Hori dela eta, Treba Gurasoak eta Treba gazteak bezalako ekimenak sustatzen jarraituko dugu, hezkuntzaren bidez, buruko gaitza nerabezaroan, familiarekin komunikazioa, pornografia, hezkuntza sexuala, erlazio osasuntsuak, pantailekiko adikzioa, sexualitatea eta beste aktualitateko gaiak lantzeko. Azken urtean 159 hitzaldi antolatu ditugu 65 herritan eta 3.000 lagunetik gora izan dira parte hartzen.

Zuk jakitea nahi dut bezalako ekimenak ere lantzen jarraituko dugu, adineko eta mendeko pertsonen nola zainduak izan nahi duten zehaztu dezaten. Gainera, desgaitasuna daukaten pertsonen bizitza independenterako programak sendotzen jarraituko dugu Elkarturekin batera; eta aurten aktibatu dugun Dragon Boat bezalako proiektu berritzaileak bideratuko ditugu, minbizia gainditu duten pertsonen lagungarri izan zaiela ikusita.

Bizitza osasungarria eta ongizatea sustatzeko helburu horrekin, kirol azpiegiturak hobetzen jarraituko dugu 35 herritan, 8 milioiko inbertsioarekin, ariketa fisikoa sustatu eta espazioak egokitzeko.

Pertsonen ongizatea sustatzeko estrategiak badauka beste hari mutur bat, aktualitateari erabat lotua dagoena: gurera bizitza proiektu hobe baten bila etorritako pertsonak integratzearen erronkarena, alegia.

Jakina da azken hamarkadetan gora egin duela atzerritarren kolektiboak gurean. Zehazki, %75 igo da etorkin kopurua azken hamarkadan, 2014ko 40.000 lagunetatik 70.700etara igaro baikara 2024an. Hau da, Gipuzkoan bizi garen pertsonen 10etik bat atzerrian jaioa da. Eta jaiotzen diren hiru haurretatik batek atzerrian jaiotako ama dauka.

Datu hauek argi erakusten digute nola aldatzen ari den gure egungo gizartearen konfigurazioa. Eta zer nolako erronka daukagun eskuartean.

Gurea haien etxe ere senti dezaten, bere ezaugarri, gabezia eta bertute guztiekin. Eskubide eta betebeharrak guztiekin, gutako bakoitzak bezala.

Gure etxea ez da nolana hikoia. Gurea etxe on bat da, Europako ongizate maila onenatarikoa daukana; langabezia tasa txikia daukana, izaera, historia, hizkuntza eta kultura propioa dituen, eta salbuespenak salbuespen, kanpotik datorrena besoak zabalik jasotzen duena. Gurea

ere, garai oso zailetan, kanpora joan behar izan zen herria delako eta kontzientzia eta sentsibilitate kolektibo haundia ditugulako.

Gipuzkoar berri asko ditugu gure artean eta gehiago izango ditugu. Eta gure jaiotza tasari erreparatuz, gehiago beharko ditugu. Egin dezagun ondo bide hau. Babestu eta integratu. Hori da helburua. Gure etxea denon etxea izan dadin, gizartea kohesionatzen jarraituz.

Korrante ultra eta xenofoboak hortxe daude eta gurean ere lekua hartzeko arriskua dago. Ardura partekatua daukagu herritar eta erakundeek hori ekiditeko. Babestu eta integratu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz hitz egin nahi dut datozen minutuetan.

Duela urtebete, karguari zin egin nionean, aurreratu nuen gurea gobernu feminista izango zela eta berdintasun erreala gauzatzeko jauzi berri bat emango genuela. Eta hala egiten ari gara eguneroko jardunean, politika publiko transbertsalak garatuz.

Horren isla da, esate baterako, azken hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztiek Berdintasunerako IV. Plana garatzeko egin duten elkarlana. Prozesua benetan emankorra izan da.

Horrez gain, sentsibilizazio kanpainak abiatu ditugu emakume adinduek gazteenen ahalduz egindako ekarpenari balioa emateko eta emakumeok jaiak berdintasunean bizitzeko daukaten eskubidea azpimarratzeko.

Azken urtean emakumezkoen kirolak berri benetan positiboak utzi dizkigu lurraldean. Futbolean, eskubaloiean, izotz hockey-ean, txirrindularitzan, besteak beste. Emakume kirolari eredugarriak ditugu, inspirazio iturri direnak guztiontzat. Egin beharreko bidea marrazten laguntzen digutenak. Berdintasun politiketan aurrera egiten laguntzen digutenak.

Oraindik asko daukagulako egiteko.

Gogora ekarri nahi dut pasa den astean, Bilbon, bere bikotekideak labankadaz erahildako emakumea. Emakumeok seguru eta aske bizi nahi dugu. Ate baten atzean zer gertatzen den jakitea oso zaila da, baina zantzua dagoen momentuan, salatu eta eskua hartuta, elkarrekin, egin behar diogu aurre gurean ere errotuegi dagoen arazo estruktural honi.

Segurtasun departamentuaren datuen arabera, gure lurraldean indarkeria matxista jasan duten 2.100 emakume inguruk jasotzen dute

Ertzaintzaren babesa eta horietatik zortzik bizkartzaina daukate. Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiken departamentutik, berriz, indarkeria matxista pairatu duten 1.300 emakume baino gehiagori laguntza psikologikoa eskaintzen zaie urtero. Datu benetan kezagarriak.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak sexu indarkeria pairatu duten biktimei arreta integrala emateko krisi zentro berritzailea zabaldu du Donostian, 24 ordutan zabalik dagoena urteko 365 egunetan. Eta datozen hilabeteetan beste bi irekiko ditugu Arrasaten eta Goierriin.

Biktimen ondoan egon eta arretarik onena ematea benetan garrantzitsua delako.

3.2. EKONOMIA

Legealdiko bigarren erronka nagusira igaroko naiz orain: Ekonomiaren era, hain zuzen ere.

Gogoratu nahi dut zein izan zen lau urtetarako ezarri genuen helburua: ongizatera bideratutako ekonomia sustatzea, jasangarritasun hirukoitza bultzatzen duena, lehiakorra eta berritzailea, aukerak sortzen dituena.

Uste dut, hasteko, bi faktore nagusi hartu behar ditugula kontuan: mundu mailan bizi ditugun eraldaketak eta horiek dituzten inplikazioak, batetik, eta gure enpresen tamaina eta egitura, bestetik.

Lehenengo faktorearekin hasiko naiz. Trantsizio hirukoitz batean murgilduta gaude: teknologiko-digitala, ekologikoa, eta demografikoa. Bisitatu ditugun enpresa guzietan adierazi digute digitalizazioaren eskutik datozen teknologia disruptiboak nabarmen aldatzen ari direla, esaterako, ekoizteko, enpresak antolatzeko edo lan egiteko modua. Klima aldaketari erantzuteko hartu beharreko neurriek ere inpaktu zuzena dutela ekonomian, eta Gipuzkoarentzat estrategikoak diren sektoreetan, gainera. Eta gizartearen zahartzeak ere, noski, inplikazio zuzenak ditu enpresetan.

Bigarren faktoreak, esan bezala, gure tamainarekin du harremana. Enpleguaren %60 50 langile edo gutxiago dituzten enpresetan kontzentratzen delako gurean.

Diagnostiko horretatik abiatuta, lau helburu nagusitan ari gara lanean.

Lehenengoa: kalitatezko enplegua sustatzea.

Gure lehentasun nagusia da sektore eta eskualde guztietan pertsonak eta enplegua babestu eta finkatzea, bereziki lanpostu bat lortzeko zailtasun gehien dutenei. Nola?

- Eraldatze teknologikoen aurrean, pertsonen gaitasunak indartuz.
- Kontziliazio erantzunkidea, enpresa eredu parte-hartzailea eta enplegarritasuna landuz.
- Talentua sortu, finkatu eta erakarriz.

Hori bideratzeko, 139 programa lagundu ditugu 4 milioiko inbertsioarekin.

Bigarren helburua: Enpresen lehiakortasuna indartzea.

Gure lurraldeko enpresen lehiakortasuna urte luzez egindako lanaren emaitza da; besteak beste, berrikuntzan, nazioartekotzean, formazioan eta kudeaketa aurreratuan egindako ahaleginaren emaitza. Bide horri eusteko, aukera berriak probestu, beharrezko inbertsioak egiten jarraitu eta datozen erronka eta beharrei eraginkor eta lehiakor erantzun behar zaie. Enpresen bidelagun izango gara ahalegin horretan. Nola?

- Teknologia garatuz, eraldatze teknologiko-digitala eta energetikoan aurrera egiteko.
- Lehiakortasunerako azpiegitura ekosistema sendotuz.
- Nazioarteko merkatuetara zabalduz.
- Enpresa txiki eta ertainen eraldatzea sustatuz.
- Zailtasun egoeran dauden enpresei lagunduz.

Guztira, 89 enpresa eta eragile lagundu dira bide honetan, 2.5 milioiko inbertsioarekin.

Hirugarren helburua: Ekonomia jarduera eta industria sektore berriak.

Gipuzkoako ekonomiaren ezaugarri historiko nagusietako bat izan da ekintzailtza. Eta horri eutsiz, jauzi bat ematen ari gara, aukera eremuak zabaltzen dituzten sektoreetan ekonomia aktibitate berria eragingo duten ekosistema eta egitasmoak bultzatuz.

Dakizuen bezala, 2016az geroztik, Etorbizuna Eraikiz strategiaren eskutik, lurraldeko erronka ekonomiko eta sozialei elkarlanetik aurre egiten dihardugu. Espezializazio adimendunaren printzipioa jarraituz, hau da, dagoeneko indarguneak ditugun eremuak garatuz, eta, gure garaiko erronkak aurrera egiteko eta hobetzeko aukera bihurtuz.

Horretarako formula lankidetzeta eta esperimentazio publiko-pribaturako espazio berriak sortzea da, proiektu eraldatzaileak abian jartzeko. Dagoeneko abian ditugu 8 erreferentzia zentro eta hiru proiektu estrategiko. Ezagutzen dituzue eta badakizue potentzial handiko ekimenez ari garela, legealdi hau eklosioarena izango dela. Izan ere, ekonomiari lotutako albiste benetan pozgarriak izango ditugu Gipuzkoan epe motz eta ertainean.

Adibidez,

- MUBIL: urte amaierarako prest egongo da Ezkuzaitzetan Europan parekorik izango ez duen mugikortasun berriari lotutako poloa. Mubil eraikinak 10.000 metro koadro izango ditu, baina bere inguruan sortuko den poloak, hirukoitza baino gehiago: 38.000 metro, hain zuzen ere. Etorkizuneko mugikortasunean funtsezko izango diren eremuetan ezagutza aurreratua sortu eta prototipoak testatzeko aukera emango digu. Lurralde osoan mugikortasun berriari lotutako jakintza aurreratua sortuz, eta automozioeko enpresa txiki eta ertainei mugikortasun berriak dakarren eraldatzeari egokitu eta negozio aukera berriak probesten lagunduz. Eta guztia sektorearekin elkarlanean. Cidetec, CEIT, Vicomtech eta Tecnaliak bat egin dute Mubil poloarekin eta lanak amaitzerako aurreikusten da 600 eta 700 langile artean arituko direla bertan. Ez da nolanhiko datua. Etorkizuneko sektoreaz eta lan kualifikatuaz ari gara.
- Terapia aurreratuak eta biozientziak. GANTT proiektuaren bitartez, osasunaren eta bioteknologiaren alorreko eragileekin elkarlanean, Gipuzkoa posizionatzen ari gara etorkizuneko medikuntza eta gaixotasun larrien tratamendurako terapietan. Gaur egun 70 enpresa inguru ditugu alor honetan jarduten direnak, 1.000 bat langilerekin. Helburua da Gipuzkoa Saiakuntza Klinikoen erreferentziazko zentro bilakatzea.
- Teknologia kuantikoak. Ikerbasque eta gainontzeko euskal erakundeekin elkarlanean, konputazio kuantikoko gune aitzindaria instalatuko da Donostian BasqueQ estrategiaren bitartez. Dakizuen bezala, 2025eko bigarren sei hilekorako abian izango da, IBMren eskutik, munduko seigarren super konputagailua eta helburua da sektore honi lotuta, datozen urteetan 1.000 lanpostu sortzea teknologia kuantikoen inguruan. Eta gure enpresa, ikerketa zentro eta unibertsitateei ere aukera berriak eskainiko zaizkie.
- Zibersegurtasun industriala. ZIUR zentroaren bitartez, lurraldean zibersegurtasun industrialaren zertifikazioari lotutako sare edo hub bat sortzeko lanean ari gara, orain arte egindako bidea sendotuz. Izan ere,

1.200 eragilek parte hartu dute dagoeneko formakuntza eta aholkularitza tailerretan eta 96 enpresa eta 22 proiektuekin egin du lan Ziurrek.

. Elkar Ekin Lanean: Aurreko legegaldian bazterkerian edota bazterkeria pairatzeko arriskuan zeuden pertsonak lan merkatura bideratzeko aktibatutako ekimen honek arrakasta izaten jarraitzen du. Azken bi urteotan 450 pertsona laneratu ahal izan badira, 2025-2026 urte bitarterako zenbaki hori beste 550 lagunetara igotzea aurreikusten da.

Harrotasunez baina harrokeriarik gabe, eskuartean ditugun aurreikuspenak partekatuko ditut zuekin. Gipuzkoako Foru Aldunditik bultzatutako proiektu estrategikoen bidez, kuantika, biozientziak eta mugikortasun jasangarria bezalako etorkizuneko sektore berriak indartu eta 3.000 lanpostu kualifikatu sortzea aurreikusten dugu datozen urteetan.

Gipuzkoa, en la vanguardia. Impulsaremos la creación de 3.000 puestos de trabajo cualificados en sectores de futuro como la cuántica, las biociencias y la movilidad sostenible. Desde la colaboración, mediante los proyectos de Etorkizuna Eraikiz que ya se están materializando.

Cuarto y último objetivo económico: Los principales sectores, ejes de la promoción económica.

La industria es la columna vertebral de la economía guipuzcoana, pero contamos con un muy diverso conjunto de empresas y actividades. Todas ellas se encuentran actualmente en el trance de afrontar los desafíos de la transformación tecnológica, energética y social. Por ello, hemos puesto en marcha políticas de promoción económica teniendo en cuenta sus especificidades.

- Estamos impulsando la triple sostenibilidad en la industria a través de políticas a favor de la descarbonización. En total, 61 empresas han recibido apoyo en esta vía este año, con 2,1 millones.
- Estamos impulsando el relevo generacional, ofreciendo apoyo adaptado a los procesos de relevo, en colaboración con las agencias de desarrollo. Hemos apoyado a 22 empresas en esta vía, con 333.000 euros.

En este apartado dedicado a la economía podríamos citar también el turismo y el primer sector, pero este último tema lo abordaré más adelante, en el bloque de sostenibilidad.

En relación al turismo, una vez que superada la situación de pandemia, estamos en cifras record: vienen más visitantes que nunca, y la industria turística representa el 7,1% del PIB en Gipuzkoa. El reto consiste en gestionar ese momento. Buscar el equilibrio, desestacionalizar y distribuir en el territorio los flujos turísticos. Equilibrio en todos los aspectos.

El tren de alta velocidad será una infraestructura directamente relacionada con la economía y, por supuesto, con la descarbonización. Nos encontramos en un momento realmente importante porque en los últimos tiempos se ha llegado a cuestionar la conexión de la Y vasca desde Ezkio-Itsaso.

En la Diputación Foral de Gipuzkoa lo tenemos muy claro que la de Ezkio es la mejor opción desde todos los puntos de vista. ¿Queremos un tren de alta velocidad o no? Ahí está la clave.

Sí. Queremos un tren de alta velocidad y tiene que ser por Ezkio. Esta conexión es más corta, 20 km menos; es más competitiva porque reduce los tiempos, 20 min menos; y, por tanto, incidirá más en la descarbonización porque sacará más vehículos de la carretera. Además, desde el punto de vista ambiental su impacto es menor, la mitad, y no presenta riesgo de saturación. Pero hay quien sólo se centra en el coste económico de su construcción. Tremendo error. Porque el hecho de no subirnos a este tren tendría un impacto económico mucho mayor. Es una apuesta estratégica de país para los próximos 150 años.

Este es un tema clave para el futuro de Euskadi, hablamos de una infraestructura que nos conectará de forma sostenible y rápida con el Mediterráneo, el arco atlántico y Europa. Que ofrecerá un servicio eficaz y sostenible a nuestras empresas y a la ciudadanía. Defendamos un tren realmente sostenible y rápido desde Ezkio-Itsaso.

Siguiendo con las infraestructuras, quiero hacer referencia a las carreteras. Y es que, a diferencia del TAV, el ciclo de construcción de infraestructuras viarias está ya finalizado y hemos entrado en la fase de mantenimiento y mejora de las mismas. Tomando como referencia la Rotonda de Gipuzkoa, cualquier persona de nuestro territorio dispone de una carretera de alta capacidad a 15 minutos de su domicilio. El reto actual es seguir manteniendo y mejorando las condiciones punteras de nuestra red de carreteras.

Contamos con una amplia red de carreteras con más de 1.000 puentes y viaductos, muchos de los cuales estamos renovando con una inversión

de 26 millones. Entre ellos destacan la rehabilitación del extremo oriental de los viaductos de la GI-20 de Loiola, varios viaductos y puentes de la N-1, o el acceso a Mendaro.

Además, continuaremos con las obras de rehabilitación de los túneles de la A-15. Ya se han renovado cinco de los ocho túneles y, a finales de este mes, se iniciarán las reformas de Oindolar y Gorosmendi. El último túnel, el de Belabieta, comenzará el próximo año con una inversión total de 94 millones. En la AP-1, por otro lado, continuamos con las obras de renovación del túnel de Lesarri, con el segundo tubo de la infraestructura.

Entre otras obras relevantes, se encuentran en marcha los trabajos de conexión y acceso en varias localidades. Por ejemplo, en Donostia, en Marrutxipi, el nuevo acceso Este de la ciudad. Esta obra concluirá en los próximos meses y supondrá una importante transformación en el tráfico. Asimismo, tenemos preparada la nueva fase de mejora de la carretera Azkoitia-Urretxu. Básica para toda la comarca. La nueva variante de Zarautz también estará en condiciones de licitarse para finales de año. En Gaintxurizketa se está trabajando junto con ETS y el Ayuntamiento en una solución que garantice la seguridad peatonal, y en Bidasoa se sigue trabajando conjuntamente con ambos ayuntamientos en la mejora de las infraestructuras viarias de Irun y Hondarribia. Todos estos trabajos son de gran impacto local, fundamentales para municipios y comarcas.

Horrez gain, gogoratu nahi dut Bidegiren diru sarreretatik 32 milioi mugikortasun jasangarria sustatzera bideratuko ditugula. Errepideetako kutsadura murriztu, bidegorri sarea sendotu eta intermodalitatea sustatuko dira, besteak beste.

Erabaki honek bat egiten du azken urteetan garraio publikoa hobetzeko egindako apustuarekin. Izan ere, ahalegin berezia egin da ibilbide eta zerbitzuak berritu eta egokitzeko eta emaitza benetan ona izaten ari da: Gaur egun, Gipuzkoan ematen diren garraio publikoko 10 bidaietik 8 MUGI txartelarekin ordaintzen da. 2023 urtea MUGIren historiako urterik onena izan da, 69 milioi bidai MUGI txartel bidez ordaindu direlarik, iaz baino 12 milioi gehiago.

Azpimarratzekoak dira, baita ere, Loiura doazen autobusetan MUGI txartela ezarri izana, Pasaiako motoran ordainketa sistema hau jartzea eta 25 autobus hibrido berri erosi izana, besteak beste.

Datozen hilabetei begira, zenbait erronka ditugu eskuartean, esate baterako, MUGI birtuala aktibatzea edota BAT eta BARIK txartelekin Gipuzkoako autobusetan ordaintzea.

Amaitzeko, gogoratu behar da legegintzaldi honetan 4,5 milioiko inbertsioak egin ditugula Amezketan, Errota-Eitzaga, Iraeta-Narrondo edo Lezo-Donibaneko bidegorrietan.

Gure eskumen propioekin jarraituz, ogasunaz hitz egin nahi dut jarraian benetan gai garrantzitsuak ari garelako lantzen departamentu honen gidaritzapean.

Hasteko, erreforma fiskala.

Jakina den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua foru arauaren aurreproiektu berriaren azterketan eta garapenean murgilduta dago. Lurraldeko jarduera ekonomikoari eusten jarraitzeaz gain, Batzar Nagusi hauetan egindako erreforma fiskalaren ponentzian planteatu diren hamaika erronka sozialei erantzuna emango zaie.

Gazteak eta etxebizitza, demografia, zainketa-eredu berria, pentsioen iraunkortasuna, talentuaren erakarpina, lehiakortasuna eta berrikuntza, desberdintasun-mailen murrizketa, genero-berdintasuna, kontziliazioa, fiskalitate berdea eta tokiko merkataritza dira identifikatutako erronkak. Etorkizuneko foru-arau honen bidez, tresna fiskal egokienak bideratuz, erakunde guztiak elkarrekin koordinatuta, garatu beharreko gainerako politikekin batera erantzun nahi dugu.

Oinarri sendo batetik abiatzen gara; izan ere, 2014ko (PFEZ) eta 2018ko (Sozietateen gaineko Zerga) erreformen emaitza onek egonkortasun ekonomiko eta soziala eman digute, eta, aldi berean, Europako herrialde aurreratuenen pareko kohesio-mailak bermatu dituzte gure herritarren artean. Baita krisi garaian ere. Enpresei, autonomoei eta familiei lagundu diegu.

Oinarri horri eta gure lurraldearen testuinguru ekonomikoari esker, diru-bilketaren maila errekorra lortu dugu 2023an, eta bilketaren hazkunde-maila horri eutsiko genioke 2024ean mutualisten sententzien eraginagatik izan ez balitz. Bidezkoa da erabat diru itzulketak egitea, baina inpaktu handia izan du diru bilketan.

Ticket Bai da digitalizazioaren alde Aldunditik egindako hautuaren adibide esanguratsua. Zerga-betebeharrak azkar eta eraginkor

betetzea erraztu eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea baita helburua. Eta 2023ko ekainaz geroztik, Gipuzkoako jarduera ekonomiko guztiek, salbuetsita dauden kasuetan izan ezik, TicketBAI sistemaren pean jarduten dute, eta, horrela, TicketBAI aplikatzen duten 42.000 negozio baino gehiagori zerga-administrazioaren laguntza ematen aitzindari bihurtu gara.

Horrela, 2024an, enpresen digitalizazioan urratsak ematen jarraitzen dugu epe laburrean aitorpenak eginak bidali ahal izateko, gutako bakoitzari errenta aitorpenarekin egiten zaigun bezala.

Ogasunaz ari garela, balioan jarri nahi ditut Batzar Nagusi hauetan arlo honetan adostu ditugun akordioak. Izan ere, oso ugariak eta askotarikoak izan dira eta herritar eta kolektiboek onura ekarriko diete, zalantzarik gabe.

Lehen akordioa eta ziurrenik garrantzitsuena onuradun kopuruagatik: familiak eta kolektibo ahulenak prezioen inflaziotik babesteko asmoz hartutako neurri sorta dira. Horien artean dago PFEZaren deflaktazioa % 2,5 handitzea.

Bigarren akordioa: ekintzailerria eta industria sendotzeko pizgarriak.

Hirugarren akordioa: autonomoei, baseritarrei, garraiolariari eta mikroenpresei zuzendutako forfait-ak.

Laugarren akordioa: kultura sustatzeko pizgarri fiskalak, lurraldeko ikus-entzunezkoen eta kulturaren sektorea sendotzeko.

Bosgarren akordioa: enpresa berritzaileen fundatzaileentzako erregimen berezia onartu dugu, PFEZn beren lan-etekin osoen % 30eko salbuespena aplikatzea ahalbidetuko duena.

Seigarren akordioa: 1.100 biztanletik beherako udalerrien finantzaketa indartzeko egokitzeko udal foru funtsari dagokiona.

Krisi-testuinguruetan, argi daukagu beharrezkoa dela fiskalitatea familiei eta jarduera ekonomikoari laguntzeko tresna gisa zuzentzea. Eta horretan sakontzeko helburu argia daukagu.

3.3. JASANGARRITASUNA

A continuación, hablaré sobre sostenibilidad y medio ambiente.

La sostenibilidad ha sido, es y será una prioridad para este Ejecutivo.

Por eso en 2018 creamos la Fundación Naturklima, que es un proyecto de éxito y una realidad bajo la cual podemos actuar para cumplir con los hitos que nos hemos marcado.

El último informe *Anticipa* de la Fundación de Economía Circular revela que Gipuzkoa ha superado con éxito los objetivos establecidos por la Directiva Marco de Residuos, alcanzando en 2021 el 55,32% de reciclaje, superando cinco años antes de la fecha límite el objetivo del 55% fijado, y logrando un vertido cero. También destaca que en la actualidad Gipuzkoa es líder en la gestión de residuos, con cifras que lo posicionan como un claro referente. Sin embargo, hay dos ámbitos en los que tenemos que seguir mejorando que son la prevención y la reutilización de residuos en los que ya estamos trabajando con el CPR y el Hub de baterías Zirkular bat, por ejemplo.

El CPR es un proyecto fundamental para dar una respuesta integral al ciclo completo de gestión de residuos urbanos. Con una inversión de 16,4 millones de euros en Eskuzaitzeta, generará entre 80 y 110 nuevos empleos y se priorizará a personas en situación de vulnerabilidad. Con la entrada en funcionamiento de esta nueva infraestructura se reducirán un 10% las emisiones de gas de efecto invernadero de los sectores industrial y energético de Gipuzkoa.

También en Eskuzaitzeta, y en colaboración con Cidetec, impulsamos el proyecto Zirkular Bat, con el objetivo de crear una comunidad empresarial para fomentar un ecosistema circular de baterías, fomentando la reutilización y reciclado de componentes y materias primas.

Mencionar también el Clúster de la Moda Sostenible, que se ha convertido en un referente en la economía circular textil o el clúster de reciclaje GK Recycling que agrupa a más de cien entidades, generando 6.500 empleos y una facturación de 1.425 millones de euros.

Gipuzkoa ya ha superado el gran problema de gestión de residuos que padecía y seguimos avanzando con las ocho infraestructuras puestas en marcha desde 2016, para completar una gestión sostenible, desde el tratamiento y recuperación, sin necesidad de vertedero.

Además, hay que destacar que Gipuzkoa cuenta con 56 comunidades energéticas que dan servicio a 10.000 familias.

En la propia Diputación hemos reducido nuestro consumo eléctrico en un 23,6% desde 2015, siendo el objetivo llegar al 35%.

Aipamen berezia egin nahi diet lehen sektoreari eta landa inguruneari, gure ingurunea mantentzeko izugarrizko garrantzia daukatelako. Dakizuen bezala, legealdi honetan lehen sektorearekin eta landa ingurunearekin zerikusia duten politika guztiak bateratzen dituen departamentu propioa sortu dugu, Lurralde oreka berdearena, Aldundiarentzat horiek duten izaera estrategikoaren adierazgarri.

Zergatik egin dugu oreka berdearen aldeko hautua? Alde batetik, orekak hainbat alor barne hartzen dituelako: hiri, eskualde eta herri txikien arteko oreka; sektore ekonomikoen arteko oreka; paisaia orekatua; landa ingurunearen erabilera desberdinen arteko oreka; bizimodu eta elikadura osasuntsuak dakarren oreka; eta belaunaldien arteko oreka, besteak beste.

Nekazal jarduera eta ingurugiroaren zaintza txanpon beraren bi aldeak dira, eta bai sektoreak berak zein gizarteak gero eta barneratuago daukate lotura hori.

Gauzak horrela, orain arteko konpromisoei eutsiko diegu, baserriko ustiapenen errentagarritasuna eta belaunaldi berritzea sustatuz, eta kudeaketa modu berritzaileetan sakonduz, lurralde oreka berde baten alde egiteko. Horretarako, ekimen interesgarriak abiatu ditugu lehen urte honetan.

Adibidez, hobari fiskalak ezartzeko aukera aztertzeke asmotan, baserriarrek Zerbitzu Ekosistemikoei egiten dieten ekarpena neurtzen ari gara unibertsitateekin eta ikerketa zentroekin lankidetzan. Bestalde, elikadura jasangarria indartzeko lurralde-misioa garatzen ari gara, Etorkizuna Eraikiz proiektuaren barruan, tokiko ekoizpena babestu eta indartzeko asmoz. Baserriak eskualdatzeko plana ere diseinatzen ari gara erreleboa bermatzeko asmoz, eta Gaztenek Berri proiektuaren bidez, belaunaldi aldaketa eta ekintzailtza sustatzen ari gara, urtero 15 gazterekin. 2005 urteaz geroztik 343 gaztek egin dute baserriaren aldeko lan hautua ekimen honen bidez.

Era berean, lurraldearen % 60 baino gehiago zuhaitzez estalia egonik, behar-beharrezkoa da basoen kudeaketa jasangarrian ere aurrera egitea. Horretarako, basoen jabegoa errespetatuz, bultzada publiko berria emateko sortu dugu Basotik fundazioa. Aldundiak bultzatutako tresna honen bidez baso jabe txikien jarduna erraztea bilatzen da eta basoen abandonua ekidin. Urte amaierarako 200 lur-jabek egingo dute bat ekimenarekin, eta 2025ean, beste 400 atxikitzea espero da. Aurten,

800 eta 1000 hektarea artean kudeatzea da helburua eta kopuru hori 15.000 hektareatarra handitzea espero da zortzi urteko epean.

Eta nola ez, ahalegin berezia egiten ari gara landa ingurune bizia eta herri txiki dinamikoak izateko, non belaunaldi berriek ere beren bizitza proiektuak ongizate eta erosotasun osoz eraikiko dituzten. Hala, landa ingurunean eta herri txikietan ekonomia aktibitate berria sortu dadin baldintzak erraztu eta dagoeneko dauden aukerak sendotzen saiatzen ari gara, alkate eta udalerriekin batera. Bide horretan, herri txikietan banda zabal ultra azkarra hedatu ondoren, lurraldeko landa-ingurune osora zabaltzeko urrats berriak ematen jarraitzen dugu. Zailtasun askorekin, baina ari gara. Gainera, udalherri txikietako etxebizitza-eskaintza zabaltzen ahalegintzen ari gara.

Eta hau guztia, nola?

Elkarlana, esperimentazioa eta berrikuntzaren eskutik. Lankidetzan, honetan ere.

Lehen aipatu ditudan egitasmo askok bokazio berritzaile horri erantzuten diote. Bi aipatzearren:

- 1. Herritarren Batzarra:** Prozesu aitzindari honen bitartez, 32 herritarrek nekazaritza jarduera eta klima aldaketa bezalako gai publiko garrantzitsuen gaineko deliberazioan parte hartu dute. Herritar horiek bederatzi gomendio egin dituzte, eta horiei lotuta hainbat konpromiso hartu ditugu Aldundian.
- 2. Baserritar misto profesionala:** Aurretik aipatutako prozesu horren emaitzetako bat da egitasmo hau. Gipuzkoan lehen sektorea bi eratako jendeak osatzen du: erabat hortik bizi denak eta baserria eta beste jarduera bat bateratzen dituenak. Mistoen iraunkortasuna kolokan egon daiteke baldin eta bi jarduerak eroso uztartzeko gai ez bagara. Bost urteko proiektu pilotoa abian jartzea da gure asmoa eta datorren urtetik aurrera, urtero, 30 baserritarrek parte hartzea ekimenean.

3.4. DEMOKRAZIA

Asko hitz egiten ari gara demokraziaz. Demokraziaz eta haren oinarrian dauden balioez. Begiratu besterik ez dugu Europara eta mundu zabalera. Pentsatu ere ez genukeen egingo, orain dela hamarkada bat, demokraziaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten indarrek halako babes

soziala lortuko zutenik. Iparraldean bertan ikusi dugu, gure etxean, ultra-
eskuinak zenbaterainoko babesak jaso duen Frantziar Estatuko azken
hauteskundeetan. Estatu Batuetako hauteskundeetan zer gertatuko,
egoera horrek asko baldintzatuko du, zalantzarik gabe, Europaren eta
munduaren etorkizuna.

Demokrazia eguneroko lanarekin, eguneroko erabakiekin, arnas luzeko
ahaleginarekin defendatzen eta sendotzen da. Guztioi dagokigu. Gutako
bakoitzari.

Badakigu muturreko populismoak nondik elikatzen diren: gizarte
desberdintasunetatik edaten dute, azken urteetako krisiek utzitako
zaurietatik eta gizartearen eta erakundearen arteko konfiantzaren
hausturatik.

Erakundearen eta gizartearen arteko arrakala gainditu eta elkarlana
indartzeko lanean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz
egitasmoa abiarazi zuen duela zortzi urte. Europak esperientzia aurreratu
gisa definitutako programa aitzindaria da, lankidetzakomunitario eta
politikoko esperientzia garrantzitsuenetako bat dela aintzatetsi dute. Eta,
batez ere, politika publiko aitzindariak sortzea ahalbidetu du. Hori ez du
Aldundiak bakarrik lortu, azken urteotan abian jarritako programetan eta
ekimenetan parte hartu duten 70.000 lagunen lorpen kolektiboa baita.

Hori dela eta, begirada altxa eta aurrera begira jarrita, lau alor landu
nahiko nituzke demokrazian sakondu eta populismoari aurre egiteko.

1. Lankidetzazko gobernantza
2. Aniztasuna eta hizkuntza berdintasuna
3. Komunitatea indartzea
4. Autogobernuan aurrera egitea

1) Lankidetzazko gobernantza

Legegintzaldi honetan etapa berri bat hasi du Etorkizuna Eraikizek. Lehenik
eta behin, Etorkizuna Eraikiz programaren prozesuak sakon txertatzen ari
gara Aldundiaren beraren kudeaketan. Bigarrenik, gobernantza
kolaboratiboa eta berrikuntza politikoa indartzen ari gara lurraldeko maila
guztietan. Eta, hirugarrenik, Etorkizuna Eraikiz ekimenak gobernantza
kolaboratiboaren eta agenda publikoaren baitan berrikuntza estrategia
gisa duen zeregina indartu dugu.

Etorkizuna Eraikizen barruan proiektu traktore berriak zehaztu eta diseinatzeko lanean ari gara. Horiek, beraz, orain arte ezartzeko bidean dauden erreferentziazko hamaika zentro eta estrategiei gehituko zaizkie.

Etorkizuna Eraikiz da demokrazian sakontzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak abian daukan egitasmo nagusia. Lankidetzazko gobernantzaren alde egitean, Arantzazu Lab eta Gobernu Ona eta Berrikuntza Politiko Sozialaren zuzendaritzaren eskutik, politika publikoetan herritarren partaidetza indartzen ari garelako, indartzen ari garelako konfiantza publikoa eta komunitatea. Anbizioa daukagu gauzak elkarrekin hobeto egiteko. Ez gara zerbitzu publiko egokiak ematearekin konformatzen.

Lankidetzaren erabakigarria da. Gipuzkoan dagoeneko ibilbide esanguratsua dugu alor honetan eta sakondu beharrean gaude. Ez gara irla bat. Komunitate sendoa daukagu, baina indibidualismoa ere nagusitzen ari da gurean. Palanka egiteko momentua da.

Maila guztietan elkarlanean sakontzera dei egin nahi nuke Gipuzkoako gizartea. Ez bakarrik erakundeetan eta eragile sozio-ekonomikoen artean, baizik eta baita ere, elkarrekin eta enpresen artean. Elkarlanaren lurraldea gara eta ezaugarri hori indartu eta hedatzeko gai garen heinean, elkarrekiko konfiantza, lurraldea bera eta balio demokratikoak indartzen ari gara.

2) Berdintasunerantz eta aniztasunaren ikuspegian urrats sendo berriak ematea.

Gipuzkoa gero eta lurralde anitzagoa da, dela jatorri, dela etnia, dela erlijio, dela gaitasun edota sexu orientazio ikuspegitik.

Argi eta zintzo adierazi nahi nuke: horrek indartu eta aberastu egiten gaitu gizarte eta lurralde bezala.

Aniztasun horren aurrean, politika publikoak sustatzea dagokigu. Batetik, giza eskubideen eta diskriminazio ezaren balioak gure lurraldean indartu eta sendotzeko. Gizartean mezu xenofobo, matxista edota homofoboak errotu ez daitezen ekinez. Eta giza eskubideen aurkako edozein jokabide ematen denean, irmoki salatuz eta biktimak babestuz.

Bestetik, lehen esan dudana bezala, kanpotik gurera bizitzera eta lanera etortzen diren gipuzkoar berriei, tresnak eskaintzen jarraitu behar dugu euren benetako gizarteratzea eman dadin. Kalitatezko lanpostu bat da edonor gizarte batean integratzeko tresna eraginkorrena eta pertsona

orori, bereziki kanpotik datozen pertsona horiei, norbere profileraz egokitutako hezkuntza, lan munduratzeko ibilbidea, tituluen homologazioa edota paperak eskaini behar dizkiogu.

Gizarte desberdintasunak onartzen ez dituen gizartea da gurea, inor atzean utzi nahi ez duena.

Gipuzkoar gizartea kohesionatzeko zeregin horretan, hizkuntzak ere berezibiko garrantzia du. Euskararen erabilera gizarteratzeko tresna baita.

Euskarak gipuzkoar gizartean jokatzen duen funtzio hori indartzeko aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana 2023-2027 onartu dugu. Planaren zutabeak hiru dira: izaera estrategikoa izatea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea hizkuntza berdintasuna helburu izanik eta administrazioa eredu eta erreferentziazko gune izatea. Ikuspegi berritzailearekin, bi helburu definitu ditugu plan horretan:

Lehena, Aldundiaren jardura euskaratik eta euskaraz izatea. Bide horretatik jarraituko dugu.

Bigarrena, euskara bizitzako arlo guztietan lehentasunez erabiltzeko neurriak sustatzea da. Horretarako, hiru ekimen nagusitan ari gara eragiten, guztiak ere euskaren alorreko eragile eta adituekin elkarlanean: Gipuzkoa Arigune, Badalab eta Euskararen Gogoetagunea.

3) Komunitatea indartzea.

Demokrazia sendotzeko hirugarren elementua komunitatea da.

Izaera komunitario indartsua duen lurraldea da gurea. Zailtasunei aurre egin eta egungo eraldaketei aurre egiteko garaian, izugarritzko balioa du horrek.

Komunitatea zentzua ematen diguten balioetan, ohituretan eta gaitasunetan oinarritzen da. Izaera komunitario horren bizkarrezurra dira gure lurraldean hain hedatuak dauden eragile eta elkarte anitzak. Milaka herritarrek, gurean 40.000 bat lagunek, musutruk, beren denbora librean eskaintzen diote kultura, kirola, aisialdi edota gizarte ekintzari, hurkoaren zerbitzura. Elkarri lagundu eta auzo, herri eta lurralde bizi eta solidarioa eraikitzea beste helbururik gabe.

Baina ehun komunitario horrek ere baditu desafioak. Gero eta gizarte indibidualistagoa da gurea, gero eta zahartuagoa, eta hainbat eta hainbat elkarrek argi eta garbi adierazten digute zailtasunak dituztela

beren martxari eusten. Ekintzak antolatzeke garaian ere boluntario falta edota errelebo eskasia.

Gizarte gisa, lehen mailako desafioa da honako hau. Euskal Herrian hain ohikoa den elkartegintzarako eta boluntariotzarako joerarik gabe, partekatzen ditugun balio demokratiko eta solidarioetan atzerakada etorri daitekeelako. Gizarte indibidualista eta insolidarioagoa bihurtu gaitzkeelako. Eta horrek ikuspegi demokratikotik ere izan ditzake bere ondorioak, zalantzarik gabe.

Hori dela eta, elkartegintzaren etorkizuna eta belaunaldi berritzea aztertu eta lantzeko programa pilotua martxan jarriko du datozen hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiak.

4) Autogobernua indartzea.

Demokraziari lotutako azken zati hau autogobernuaz hitz egiteko erabiliko dut. Konbentziturata nagoelako Euskadi eta Gipuzkoako garapen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa erabat lotuta daudela gure autogobernu mailari.

Euskal Herritarren gehiengoak apustu sendoa egin zuen duela 45 urte estatutu itunetik eratorritako euskal erakunde sistemaren eraikuntzaren alde. Bide luzea izan da, nahi baino zailagoa. Alde batetik, Estatuaren oztopoak gainditu behar izan ditugu. Eta beste aldetik, Ezker Abertzaleari lotutako sektoreek gogor jo zuten, euskal erakunde sistema aktiboki deslegitimatzeko. Eta indarkeria. Harriek ere negar egiten zuten gure Herrian. Euskadiri kalte haundiena egin diona ETA izan da. Herrigintzari, euskal gizarteari, eta, gauza guziena ginetik, biktimei. Denak gogoan izan nahi ditut. Memoria, justizia eta erreparazioa aldarrikatu nahi ditut gaur ere.

Zorionez, beste eszenatoki batean gaude. ETAREN biolentzia atzean utzita, kontrako ziren sektore horiek bat egin dute sistemarekin eta politika publikoan parte hartzaile aktibo bilakatu zaizkigu.

Aurrarapausu haundiak eman dira bide honetan, baina oraindik ere, baditugu euskal sistema instituzionalaren eraikuntzan hutsune eta betebeharrak garrantzitsuak. Gernikako Autonomia Estatutua garatu gabe daukagu oraindik, eta bere onarpenetik lau hamarkada baino gehiago igaro badira ere, 29 eskumen Euskadira eskualdatzeko zain daude.

Agortu dira atzerapena justifikatzeko argudio eta aitzakia guztiak. Iritsi da behin betiko bultzada emateko garaia, eta Sanchez Presidenteak hitz eman du bi urteren buruan osatuko direla falta diren eskumenen eskualdatzeak. Hitza bete dezan aktiboki lan egingo dugu.

Munduan ematen ari diren eraldaketa ekonomiko, sozial eta politikoei aurre egiteko behar beharrezkoa da euskal erakunde-sistema indartsu eta ahaldundu bat edukitzea. Eta hori, ezinbestean, estatutua betetzea eskatzen du.

Baina, betetze horretatik harago, euskal erakundeek eta gizarteak ekintza politiko eta publikorako dugun gaitasuna indartu behar dugu, demokrazian sakondu, herri estrategia partekatu bat sortuz. Erakundeak, gizarte antolatua eta gizarte zibilak elkarrekin. Herri bezela indarrak batu behar ditugu. Herriaren gaitasun politiko eta instituzionala indartu behar dugu parean ditugun erronkei ondo aurre egiteko.

Euskadik garapen eta kalitate demokratiko handia du, horretarako tresnak izan baititugu. Ekonomia Ituna adibide ona da. Solidarioak gara eta arriskuak hartuta gaitasun handia eman diogu geure buruari aurrera egiteko. Honetaz jabetu beharra daukagu guztiok autogobernuari benetako balioa emateko. Konzientzia hartu eta jauzi bat emateko. Estatu egiturak eduki behar ditugu eta erabakitzeko eskubidea instituzionalizatu. Erabakitzeko eskubidea ez delako aldarrikapen legitimo bat soilik; ezinbesteko tresna da etorkizun hobea eraikitzeo. Demokrazioan benetan sinesten badugu, herritarrek erabakimena izan behar dute.

Gipuzkoako erakunde nagusiko ordezkari bezala, sinetsita nago euskal autogobernuaren inguruko akordio berri bat lortzeko aukera probestu beharrean gaudela. Gaur egungo eta ondorengo belaunaldien mesedetan. Autogobernuan hazteak esan nahi duelako ongizatean haztea.

4. ELKARLANA

Gure lurraldeak eskuartean dituen erronketaz aritu naiz luze, eta azken minutu hauetan elkarlanerako deia egin nahi dizuet Batzar Nagusietako talde guzietan. Elkarlana, akordioa eta adostasuna lortzea direlako politikaren esentzian dauden helburuak eta hori delako, hain zuzen ere, herritarrek eskatzen digutena: elkar ulertu, adostasunak itxi eta gure herriaren alde politika publiko sendoak abiatzea. Eta hortantxe

ahalegindu gara Aldundian ere azken urte honetan, eskuartean genituen lan gatazkak konpontzeko ahalegin ikaragarria egin ondoren.

Lehen urte politikoa erabat baldintzaturik egon da hiru hauteskunde deialdi izan ditugulako, baina, hala eta guztiz ere, Aldundia eta Batzar Nagusietako taldeak akordio garrantzitsuak adosteko gai izan gara. Zehazki, 43 ekimen adostu ditugu oposizioarekin Batzar Nagusi hauetan, horietatik lau, foru arauak.

Egindako bidea sendotzeko aukera paregabea daukagu hemendik aurrera, gauzak ondo bidean, hauteskunderik gabeko garaia daukagulako aurrean eta erronka itzelak ditugulako eskuartean. Erreforma fiskalaz ari naiz, esate baterako, edota datorren urteko aurrekontuez. Dakizuen bezala, foru gobernua lanean ari da bi proiektu proposamenak landu eta Ganbera honetara ekartzeko udazkenean. Eta benetan espero dut adostasun zabala lortzea.

Ez dugu deskantsurik hartuko erreforma fiskala eta aurrekontu proiektua onartzen direla ikusi arte. Gure partetik, behintzat, argi esango dut hori dela konpromisoa. Dedikazio osoa jarriko dugu bi ekimenetan eta zintzo arituko gara akordioak bilatzen, denok eroso gauden puntura ailegatu eta Gipuzkoa eta gipuzkoarren aldeko politika eguneratuak abiatzeko. Akordioa, adostasuna eta elkarlana. Oreka eta zentzua.

5. AMAIERA

Amaitzera noa.

Asko dira eskuartean ditugun ekimenak eta asko gure lurraldeak dituen erronkak. Guztietan sakondu nahi izan dut.

Elkarlana, berrikuntza eta anbizioa, horiek dira gure oinarriak. Gipuzkoaren desafioei erantzun eta pertsona guztion ongizate integrala babesteko.

Esan bezala, hau da gure ikuspuntua, hau gure ibilbide orria eta guziona gure lurraldea estrategikoki posizionatzearen ardura. Eskua luzatzen dizuegu bidea elkarlanean egiteko. Benetan esaten dizuet.

Eskerrik asko.